

EKONOMIA SOLIDARIOAREN GUTUNA

Ekonomia solidarioa jarduera ekonomikoaren ikuspegi bat da, beste interes batzuen gainetik pertsoneri, ingurumenari eta garapen iraunkor eta sostengagarriari lehentasuna ematen diena.

Ekonomia solidarioa, bere aniztasunean, **bizitzeko modu bat** da, pertsonen integritasuna barne hartzen duena, eta ekonomia bere egiazko helburuaren mende jartzen duena: gizakiaren garapen pertsonalerako, eta gizarte eta ingurumenaren garapenerako behar diren oinarri materialak modu iraunkorrean eskaintzea.

Ekonomia solidarioaren erreferentzia subjektu bakoitza da, eta gizarte-ekimenetatik sortutako komunitateak; beraz, ez da identifikatzen ekimen baten irabazi materialen arabera, baizik eta komunitateko kideek eta, sistema orokor gisa, gizarte osoak duen bizikaltatearen eta ongizatearen arabera definitzen da.

Ekonomia solidarioak, ekonomia sozialaren tradizioaren barruan, jarduera ekonomikoaren kudeaketan balio batzuk txertatzea du helburu, gizartean eta hiritar guztien arteko harremanetan nagusi izan behar duten balio unibertsalak, hain zuzen ere: ekitatea, justizia, anaitasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena. Eta ekoitzi, kontsumitu eta banatzeko modu berri bat denez, banakako eta taldekako beharrak asetzeko alternatiba bideragarri eta iraunkorra da, bide batez gizartea eraldatzeko tresna gisa ere finkatu behar duena.

Oro har, ekonomia solidarioaren aldeko mugimenduan parte hartzen dugun erakundeek, eta, zehazkiago, REAS (Sareen Sarea) elkartean gaudenok, zeharkako ardatz hauek ditugu gure eginkizuna garatzeko:

- *Askatasunerako eta ardura partekatua izateko oinarria autonomia da.*
- *Autogestioa da metodologia egokia, errespetatu egiten duelako, inplikazioa lortu, hezi, aukerak parekatu, eta ahalduntzea bideratu.*
- *Kultura askatzailea da pentsamendu sortzaile, zientifiko eta alternatiboetarako oinarria; halako pentsamenduak beharko ditugu, halaber, elkarrekin bizitzeko, ekoizteko, gozatzeko, kontsumitzeko, eta pertsona guztien zerbitzura egongo den politika eta ekonomia antolatzeko modu berriak aurkitzeko.*
- *Pertsonen garapena dimentsio eta ahalmen guztietan: fisikoak, psikikoak, espiritualak, estetikoak, artistikoak, sentikorak, harremanetakoak... naturarekiko harmonian garatu beharko dira, hazkunde desorekatu ororen gainetik. Izan ere, gaur egun "fikziozko" garapen baten izenean hazkunde desorekatua sustatzen ari da hainbat alorretan; ekonomian, finantza-alorrean, alor belikoan, kontsumismoan, osagai transgenikoetan eta oro har, sortzen ari den garapen anomaloan.*
- *Naturarekin bat etortzea*
- *Giza elkartasunak eta elkartasun ekonomikoak gure tokian tokiko harremanen,*

harreman nazionalen eta internazionalen oinarri izan behar du.

REAS-EN EKONOMIA SOLIDARIOAREN GUTUNEKO 6 OINARRIAK

1. EKITATE PRINTZIOA

- Guretzat, **ekitateak** printzipio etikoa edo justizia txertatzen du berdintasunean. Ekitatearen arabera, pertsona guztiek dute duintasun **berbera**, eta eskubidea dute menderatze-harremanen azpian ez egoteko, beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere.
- Bidezko gizarte batean, pertsona guztiek aitortzen diote elkarri aukera eta eskubide berberak dituztela, eta pertsonen eta taldeen artean dauden desberdintasunak aintzat hartzen dira. Horregatik, pertsona guztien interesak modu ekitatiboan bete behar ditu.
- Berdintasun-ekak duintasun-defizita ekartzen duen tokietan, berdintasuna funtsezko helburu soziala izango da. Desberdintasuna aitortu eta errespetatzearekin lotzen denean, “ekitate” deitzen diogu.

EKITATEAREN IKUSPEGI HORRETAN OINARRITUTA, HAUXE DEFENDATZEN DU EKONOMIA SOLIDARIOAK:

- *Desberdintasunak eta aniztasuna **elkarri aitortzea**, eskubide-berdintasunean oinarrituta.*
- ***Baliabideen bidezko balioa** ezartzea, finantza-espekulazioetatik aske, **eta haiek behar bezala banatzea**.*
- *Pertsona guztientzako **aukera-berdintasuna**, eta hura modu eraginkorrean bultzatzen duten baldintzak sortu beharra.*
- *Bizitzako alor guztietan, hala nola kulturaren, gizartearen, ekonomian, politikan eta abar **parte-hartzeko eskubidea**.*
- *Pertsona gisa gudan eragina duten alderdi guztietan parte hartu eta erabaki ahal izateko, **informazio irisgarri eta argia maiz jasotzeko eskubidea**.*
- ***Informazio-gardentasuna**, beharrezkoa baita errealitatea ezagutzeko, iritzia eman eta parte hartu ahal izateko, eta, hala, guztiontzako onuragarri izango diren neurriak hartzeko, gure erakundeetan eta gizarteko estamentu guztietan.*
- ***Elkartasun antolatua**, anaitasun edo justizia falta arindu ahal izateko.*

EKITATEARI BURUZKO ZENBAIT OHAR:

- **Aukera berdintasunerako** ez da nahikoa lanpostuetan parekidetasuna sustatzea; pertsona guztien ahalmenak garatzea bultzatu behar da, modu ekitatibo batean. Horretarako, desabantaila sozialen aniztasuna orekatuko duten ekintzak garatu behar dira, pertsona askok egiaz aukera berberak izan ditzaten. Horretarako, oinarritzkoa da parekidetasun ekonomikoa: lan berberagatik, lan-sari berbera.
- **Parte-hartzerako**, erakundeko parte diren pertsona guztiek sarbidea edukitzea sustatu behar da, baliabide guztiak jarrita, eta, horrez gain, erantzukizuna eta ahalduntze-prozesua sustatuko duten irisgarritasun-bideak sortu behar dira.
- **Gardentasuna** lortzeko, ingurukoei gure helburu eta emaitzen berri eman behar zaie, eta, informazioa lehentasunezko kolektiboetara irits dadin, komunikazio-tresna egokiak baliatu beharko dira.
- Parte-hartzea, gardentasuna, informazioa eta, azken batean, aukera-berdintasuna egiaz gauzatzen ari direla egiaztatzeko, analisiak egin behar dira etengabe.

2. LANAREN PRINTZIPIOA:

- Gure iritziz, **lana** funtsezko elementua da pertsonen eta komunitatearen bizi-kalitaterako, eta hiritarren, herrien eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoetarako. Horregatik, REASek gizarte- eta erakunde-testuinguru zabal batean kokatzen du lana ulertzeko modua; hots, ekonomian eta komunitatean parte hartzeko modu gisa.
- Gure iritziz, garrantzitsua da lanaren giza dimentsioa berreskuratzea, lanaren alderdi soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala, hartara pertsonen gaitasunak garatu ahal izateko, ondasun eta zerbitzuak ekoiztea eta, modu horretan, biztanleen egiazko beharrak bete ahal izateko (gureak, gure hurbileko ingurukoak eta, oro har, komunitatearenak). Horregatik, guretzat lana enplegu bat edo okupazio soil bat baino askoz ere gehiago da.
- Jarduera horiek banaka edo taldean egin ditzakegu, ordainduak egon daitezke ala ez (borondatezko lana), eta langilea kontratatuta egon daiteke, edo ondare eta zerbitzuak ekoizteko erantzukizuna bere gain har dezake (autoenplegua).
- Dimentsio sozial horren barruan, ez dugu ahaztu behar **pertsonak zaintzeko egiten den eta nagusiki emakumeek egiten duten lanagatik** izango ez balitz, gure gizartea ezingo litzatekeela sostengatu. Lan hori, gainera, ez da gizartean behar adina errekonozitzen, ez eta modu ekitatiboan banatzen ere.

LANAREN IKUSPEGI HORRETAN OINARRITUTA, HAUXE DEFENDATZEN DU EKONOMIA SOLIDARIOAK:

- **Lanaren giza dimentsioa berreskuratzea. Pertsonak dira ekonomia solidarioaren protagonista nagusiak**, eta, horrenbestez, beren gaitasunak garatuta hazi behar dute: ekimena, sormena, pentsatzeko gaitasuna, komunikatzekoa, kudeatzekoa, taldean lan egitekoa, arriskuak hartzekoa, ikertzekoa... Hori, era berean, gizartean txertatu eta integratzeko modu bat da, eta pertsonaren autoestimurako zutabe bat, bizitzako dimentsio guztiekin lotuta dagoena.
- **Lanaren dimentsio soziala:** gure ahalmenak komunitatearen eta, oro har, biztanleriaren zerbitzura jartzea esan nahi du. Nola ez, kontuan hartu behar dira jarduera mota guztiak, esaterako etxeko lana, edo pertsonen zainketaren alorrean egiten den lana.
- **Lanaren dimentsio politikoak:** **a)** Pertsona guztiek eskubidea dute baliabideak lortzeko aukera ematen duten aukera sozialak eskuratzeko; laneko eta gizarte-elkarrizketako oinarritzko eskubideak. **b)** Biztanleriaren beharrak asetzeko zer ekoiztea behar den planifikatzean parte hartzeko eskubidea, gertueneko biztanleriatik hasita, eta ez merkatu indefinitu eta globalizatu bati begira. **c)** Langileek eta gizarte zibilak ekoizpen-baliabideen jabetzan parte hartzea, erabaki garrantzitsuak hartzerakoan, eta enpresen kapital soziala behar sozialen zerbitzura egotea.
- **Lanaren dimentsio ekonomikoak:** **a)** Pertsonen behar ekonomikoak betetzeko moduko lan-baldintza duinak, eta kalitatezko enplegua. **b)** Harreman komertzial eta produktiboetan trukea balioztatzeko modu adostu eta bidezkoak ezartzea. Funtsean, lankidetzaren harremanak edukitzea, ez lehian oinarrituak.

- **Lanaren kultura-dimentsioa.** Lana eta enplegua bereizten ditugu, azken horrek besteren kontura egindako kontratu baten forma juridikoa baino ez baitu adierazten. Aldiz, "lana" hitzak bere giza eginkizuna, eginkizun soziala, politikoa eta ekonomikoa adierazten ditu, edozein forma juridiko edo administratibo izanik ere.
- **Ingurumen-dimentsioa,** ondare eta zerbitzuak modu iraunkorrean ekoizteko ardurua adierazten duena.

LANARI BURUZKO OHAR BATZUK:

- **Lanaren dimentsio sozialetik dator biztanleriaren beharrak detektatzeko baliabide eta mekanismoak ezarri beharra, eta, hala, gizartearentzat erabilgarriak diren ondasun eta zerbitzuak ekoiztekoa...** Hortik dator lanerako eskubidea, gure gaitasunei zentzua emateko modua baita, eta gizarteak gu errekonozitzekoa.
- Harreman ekonomiko bidezkoak lortu nahi baditugu, **aurreko dimentsio guztiekiko koherentea izango den enpresa-eredua sustatu** behar dugu, hots, gaur egun nagusi den ohiko enpresa-ereduarekiko nahiko desberdina den eredu bat.
- Enpresa horiek, beren helburu sozial eta ekonomikoak lortzeko, honelaxe funtzionatu beharko dute:
 - **Auto-kudeaketako funtzionamendua,** bestela ez baitute izango planifikatu eta erabakitze askatasunik, ez eta enpresa osatzen duten pertsona guztien sostengurik ere...
 - **Funtzionamendu gardena,** komunikazioa ona izan dadin eta informazioa guztiengana irits dadin...
 - **Funtzionamendu parte-hartzailea,** bazkide eta langile guztientzako irekita egongo diren asanbladak eginda, eta bertan, hartu beharreko erabaki garrantzitsuei buruz guztiei galdetuta.
- **Ekonomia solidarioko enpresek hauxe izan nahi dute:**
 - *Ofizio eta lanbideak ikasteko lanbide-trebakuntzako eskola,*
 - *Parte-hartze demokratiko arduratsuaren esperientzia praktikoa, hura etengabe sustatuko duena,*
 - *Erantzukizun eta arriskuak hartzeko aukera,*
 - *Aukera-berdintasunaren ekitate-eredua, non aukera ematen baita ardurakarguetara iristeko, eta lan-sarien arteko desberdintasunak minimoak baitira, ekitatiboak eta gainera ongi justifikatuak,*
 - *Plangintza eta kudeaketako eraginkortasuna nola lortu ikasteko prozesua,*
 - *Lan egonkor eta kalitatezkoa sortzeko espazioa, gehiegizko ordutegirik eta istripu-arriskurik gabekoa,*
 - *Zailtasun metatuak dituzten pertsonak hartu eta integrazteko esparru ezin hobea,*
 - *Lurralde bakoitzeko garapen lokalarekin hartutako konpromiso praktikoa,*
 - *Anaitasun ekonomikoko esperientzien laborategi bat,*
 - *Bestelako ekonomia bat eduki dezakegula ikusaraziko digun itxaropen-iturri errealista bat.*

3. INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIPIOA:

- Gure iritziz, **gure ekoizpen- eta ekonomia-jarduera guztia naturarekin lotuta dago**, eta horregatik eduki behar dugu aliantza naturarekin; haren eskubideak aitortzea gure abiapuntua da.
- Gure iritziz, **Naturarekiko harreman ona edukitzea aberastasun-iturri da, eta guztiontzako osasungarria**. Horregatik da beharrezkoa ingurumen-iraunkortasuna gure ekintza guzti-guztietan txertatzea, eta etengabe gure ingurumen-eragina (aztarna ekologikoa) ebaluatzea.
- Gure jarduera guztietan **gizakiaren aztarna ekologikoa nabarmen murriztu** nahi dugu, ekoizti eta kontsumitzeko modu iraunkor eta ekitatiboetara jo, eta nahikotasun eta soiltasunean oinarritutako etika bultzatu.

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN IKUSPEGI HORRETAN OINARRITUTA, EKONOMIA SOLIDARIOAK HAUXE DEFENDATZEN DU:

- **Kontsumo arduratsua, jarrera koherente gisa**, bi irizpide etiko nagusi hauekin: *gizarte-ekitatea eta ingurumen-iraunkortasuna, hots, kontsumoko jardunbide eta ohiturek zer-nolako ondorio ekonomiko eta sozialak dituzten kontuan hartzea.*
- **Elikadura-burujabetza**: *lurralde bakoitzak bere nekazaritza eta abeltzaintzako politikak eta elikadurakoak definitzeko eskubidea izatea, eta bere barietate eta arraza autoktonoak kontserbatzeko eskubidea.*
- **Espezieak eta lurraldeak kontserbatzea**, eta, horretarako, *gure planetaren oreka gordetzeko eta hurrengo belaunaldiak elkartasuna adierazteko, natura-biodibertsitatea babestea.*
- **Desazkundera**. *Baliabideak modu arrazionalerik erabiltzea: ura, energia, materialak... horretarako, etengabe hazteko beharrik sortzen ez duen ekonomia bat garatu behar da.*
- **Ekoizpen garbia**, *hots, energia berriztagarriak erabiltzea, bioeraikuntza, agroekologia... kutsadura prebenitzeko beharra eta gure jarduera ekonomikoek ingurumenean duten eragina (batez ere, CO2 isurketek) neurtzea.*
- **Ingurumenarekiko arduratsuak diren jardunbide eta ekimenak ezinbestean sustatu beharra** (*hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea, turismo arduratsua, energia garbiak, eta abar*), *ingurumen-hezkuntza eta ikerkuntza sustatzea, eta natura aztertzea, harengandik ikasi ahal izateko.*
- **Biztanleria eta espazioaren arteko banaketa proportzional egokia egingo duen lurralde-antolakuntza** *garatzea, behar adinako nekazaritza eta abeltzaintza edukitzeko, saneamendu-zerbitzuak, kutsagarriak izango ez diren beharrezko garraioak, eta beste hainbat zerbitzu ahalbidetzeko. Masifikaziorik gabeko hirigintza-plangintza, eta bizigarritasuna, segurtasuna, kalitatea, auzokideen arteko elkarbizitza eta atsedenearekiko errespetua bermatuko dituen eraikuntza-eredua ezartzea. Hots, toki berean nekazaritza eta hiria modu orekatuan garatu ahal izatea.*

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

- **Modu arduratsuan kontsumitzea** ez da behar edo nahi bat betetzea bakarrik, baizik eta, hori egiterakoan, **ondorio positiboak** dituzten prozesuak sustatzea, alderdi ekonomikotik (merkatu sozialeko banaketa-sareak, finantzaketa alternatiboa, banku etikoa), alderdi sozialetik (iparraldearen eta hegoaldearen arteko oreka, gizarte-barneratzea, lan-baldintza duinak, tokiko garapena...), eta ingurumen-iraunkortasunaren aldetik (kutsadura murriztea, baliabideak agortu daitezen eragozte, beharrezkoak ez diren ingurumen-kostuak saihestea...).
- Merkatuak eskaintzen dituen aukeren artean **hautatu behar dugun unean, eragin horiek kontuan hartzea** da kontsumo arduratsua; izan ere, hala egitean, kontsumitzen dugun ondasun edo zerbitzua ahalbidetzen duten prozesu guztietan laguntzen dugu: hura ekoizteko behar den energia, hura ekoizteko behar diren naturako baliabideak, behar den esku-lana (behar bezala ordaindua), eta haren erabilpen-bizitza agortu ondoren sortzen dituen hondakinak.
- Ingurumenean sortu den kaltea handia denez, **kaltetutakoa berreskuratu, hobetu eta leheneratu** behar da, eta isuritako emisioak konpentsatu egin behar dira, ingurumen-justizia modura.
- **Ekologian oinarritutako ekonomia** bultzatzeko ekimenak jarri behar ditugu abian. Ekonomia horrek, bere bideragarritasun eta iraunkortasunean, kontuan hartu beharko ditu honakoak: ingurumen-eraginaren kostuak neurtu beharra, hondatutakoa berreskuratzea (ingurumen-justizia), pertsonen osasunean dugun eragina, eta oinarri horiek betetzen dituzten hornitzaileak aukeratu beharra.
- Badakigu gure helburua, **ekologia zaindu eta ingurumena babestea**, behar bezala betetzeko, zenbait eraldaketa ekonomiko eta sozial beharko direla. Horregatik, planteamendu eta esperientzia positibo horiek ikusgarri egin behar ditugu, aldaketa horiek gertatzeko behar den presio politikoa, soziala eta ekonomikoa egin ahal izateko.

4. LANKIDETZAREN PRINTZIPIOA:

- **Lehiaren ordeaz, lankidetzaren sustatu** nahi dugu, Sarearekin lotuta dauden erakundeen barruan eta haizetatik kanpo. Horretarako, beste erakunde eta organismo publiko zein pribatu batzuekin lankidetzaren hasi nahi dugu, besteak beste.
- Guztion artean, gizarte-eredu jakin bat eraiki nahi dugu, abiapuntu hauetan oinarrituta: tokiko garapen harmonikoa, **bidezko harreman komertzialak, berdintasuna, konfiantza, erantzukizun partekatua, gardentasuna, errespetua...**
- Ekonomia Solidarioa etika parte-hartzaile eta demokratikoan oinarrituta dago; etika horrek **ikaskuntza sustatzea** du helburu, eta **persona eta erakunde arteko lan kooperatiboa** bultzatzea; horretarako, kolaborazio-prozesuak proposatzen ditu, erabakiak elkarrekin hartzea, erantzukizun eta eginbeharrak partekatzea eta, hala, ahalik eta horizontaltasun handiena bermatu ahal izatea, bakoitzaren autonomia errespetatuz eta mendekotasunik sortu gabe.
- Gure iritziz, lankidetzaren prozesu horiek alor guztietara zabaltzea behar dute: tokian tokiko alorrera, eskualdeetara edo autonomia erkidegoetara, estatuetara eta nazioarera, eta oro har, Sareetan mamitu behar dute, balio horiek sustatu eta biziko dituzten sareetan, hain zuzen ere.

LANKIDETZAREN IKUSPEGI HORRETAN OINARRITUTA, HAUXE DEFENDATZEN DU EKONOMIA SOLIDARIOAK:

- **Lankidetzaren kultura** sustatzea eta, horretarako, lankidetzaren enpresak bultzatzea, bai eta sare osatutako eredu bat ere; sare horizontal, parte-hartzaile, demokratiko eta konfiantzazko osatua.
- Harremanak **sarean** artikulatzeko beharra, eta, harreman horietan, gizartearen sustatu nahi ditugun lankidetzaren balioak eta lankidetzaren kultura izatea.
- **Sinergiak sortzeko sareak:**
 - Gure jardunbideen informazioa sozializatzea eta elkar aberastea
 - Ezagutzak trukitzea, eta hala, ikastea eta haztea.
 - Erakunde baliabideak, espazio fisikoak edo ondasun materialak partekatzea.
 - Osotasun baten parte garen neurrian, elkarren osagarri izatea eta ahaleginak batzea.
- Entitateen autonomia errespetatu eta haiek indartzea sustatzen duten sareak.

LANKIDETZARI BURUZKO ZENBAIT OHAR:

- Bestelako gizarte-ereduak eraikitzeko, ezin dugu bakarrik jardun; osotasun baten parte gara, eta, isolatuta bagaude, ez gara nahikoa.
- Konfiantza sortzeko, egitateak behar dira. Norbaitek bere informazioa, ezagutzak, esperientziak, kezak, porrotak eta abar besteekin partekatzen baditu, eta gainerako entitate eta pertsonen gauza bera egiteko gonbita egiten badie, konfiantzazko harreman gardenak izateko ohitura sortzen da.
- Sareak garapenerako eta elkarrekin hazteko espazioak dira, eta horregatik balioesten da erakundeak lortzen duen irabazia, eta erakundeak bere parte-hartze aktiboaren bitartez sare hauei egiten dien ekarpena.
- Gure Sareen arteko lankidetzak, batetik, barrura begirakoa da; hala, etengabe hobetzen dira gure entitateen arteko harremanak, proiektu bateratuetan elkarrekin lan egiten baita, eta ekimen bateratu batzuk elkarrekin sortzen baitira; bestetik, kanpora begirakoa ere bada, ekitaldi, proiektu edo kausa partekatuetan parte hartzen duten beste entitate batzuekin lan egiten baitugu, gure inguruan eragin politiko adierazgarria izan ahal izateko.
- Sareak indartzeko, gure produktu eta zerbitzuen autokontsumoa bultzatu behar da. Sareetako entitate espezializatuen kasuan, ez da onuragarri haiekin lehiatzea; onena haien zerbitzuak baliatzea da, oro har produktu jakin batzuei buruz gehiago jakiten baitute.

5. “IRABAZI ASMORIK GABEKOA” IZATEAREN PRINTZIOA:

- Guk erabiltzen dugun eta sustatu nahi dugun ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa du helburu. Horretarako, ekonomikoki bideragarri eta iraunkorrak diren proiektuak, erabat errentagarriak, modu eraginkorren kudeatu behar dira, eta haien irabaziak berriro inbertitu eta banatu behar dira.
- “Irabazi asmorik gabeko” jokabide hori oso lotuta dago guk emaitzen balantzea neurtzeko dugun moduarekin; ez ditugu alderdi ekonomikoak bakarrik kontuan hartzen, baizik eta kontuan hartzen ditugu halaber giza alderdiak, sozialak, ingurumenekoak, kulturakoak eta parte-hartzearekin lotutakoak. Azken emaitza, oro har, irabazi integrala da.
- Horrek esan nahi du gure jardueren balizko irabaziak proiektuen xede soziala hobetu edo zabaltzera bideratzen direla, eta guztiontzako onuragarri izan daitezkeen bestelako ekimen solidarioak bultzatzera; hala, gizarte-eredu gizatiar, solidario eta ekitatiboagoa eraikitzen laguntzen da.

IRABAZI ASMORIK EZ IZATEAREN IKUSPEGI HORRETATIK, HAUXE DEFENDATZEN DU EKONOMIA SOLIDARIOAK:

- *Lor litezkeen irabaziak ekimen ekonomikoaren iraunkortasuna hobetzeko **inbertitzea**, edo proiektu sozialak bultzatzeko, ekimen solidario berrietarako edo garapenerako lankidetzeta-programetarako, besteak beste.*
- *Sortzen dugun aberastasuna **banatzea**. Emaitzek gizartearen zerbitzura egon behar dute, eta ez kapital pribatuaren metaketaren zerbitzura. Bidezkoena irabaziak sozializatzea da, hala ez baita sortzen soberakin ekonomikoez jabetu nahi duen posizio menderatzailerik.*
- ***Autonomia** eta independentzia politiko eta ideologikoa, eta erabakiak hartzeko, kanpotik etor litezkeen finantzaketa-iturrien aurrean. Administrazioak diruz lagundutako ekintzak garatzeak ez du esan nahi ezin denik independentzia ekonomikorik eduki.*
- ***Gardentasuna** eta kudeaketa demokratikoa, sortutako aberastasuna komunitatearen zerbitzura behar bezala banatu eta berriro inbertitzen dela egiaztatu ahal izateko.*
- ***Iraunkortasun ekonomikoa**, errentagarritasun integralean oinarrituta; hots, emaitza ekonomiko positiboez gain, emaitza sozial eta ingurumenekoak ere kontuan hartzea. Irizpide horixe da, hain zuzen ere, beste dimentsio bati, beste kolektibo ekoizle edo kontsumitzaileei, kalterik egin gabe irabazi onuragarriak ekarriko dituen ekoizpen-ekimen ororen abiapuntua.*
- *Entitateko fluxu ekonomikoetan **finantzaketa etikoa** erabiltzea.*

IRABAZI ASMORIK EZ IZATEARI BURUZKO ZENBAIT OHAR:

- Irabazi ekonomikoak lortzea ez denez gure jardueren helburu nagusia, iraunkortasuna eta pertsonen beharrei erantzutea baizik, garrantzitsua da gure jardunbide praktikoak berrikustea, honelako gaiak finkatzeko orduan: lanaldiek ordutegi egokiak izatea, aparteko ordurik gabe, maila egokidun soldatak edukitzea, enplegua sortu edo banatzea, lan-baldintzak, eta abar.
- Sor litezkeen irabaziak berriro inbertitu eta banatzeko, garrantzitsua da aztertzea norekin partekatuko dugun gardentasunaren eta parte-hartze demokratikoaren printzipioa, hartara lehentasunei buruz pertsona edo kolektibo gehiagok iritzia eman ahal izango dutela bermatzeko.
- Gure entitateak arautzen dituzten printzipio berberak balio dute entitateok osatzen ditugun pertsonentzat; aztertu egin behar dugu gure aurrezkiak non dauden, irabaziak gizarte osora modu ekitatibo batean banatzen lagundu ahal izateko.
- Autonomoak eta iraunkorrak izateko, arreta handiz aztertu behar dugu diru-sarreraren zein portzentaje datorkigun diru-laguntzetatik, donazioetatik, erabiltzaile eta afiliatuen kuotetatik eta fakturaziotik, eta, diru-sarrera guztien aldean, portzentaje egokiak diren ikusi behar dugu.

INGURUAREKIKO KONPROMISOAREN PRINTZIOA:

- Lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa bultzatuta gauzatzen dugu gure inguruarekiko konpromisoa.
- Gure erakundeak erabat integratuta daude beren jarduerak garatzen dituzten lurralde eta ingurune sozialetan; horretarako, ezinbestean parte hartu behar dute eremu geografiko berean dauden beste erakunde sozial eta ekonomiko hurbileko batzuekin osatutako sareetan, eta lankidetzan aritu behar dute.
- Guretzat lankidetzak hori bide bat da, eta, bide horri esker, esperientzia positibo eta solidario zehatzetatik berdintasun-eza, menderakuntza eta bazterketa eragiten duten egiturak eraldatzeko prozesuak sortu ahal izango dira.
- Tokian tokiko eremuarekin konprometituta gaude eta, horregatik, dimentsio zabalagoetan artikulatu behar dugu, irtenbide globalagoak aurkitzeko; halaber, interpretatu behar dugu zer-nolako beharra dugun etengabe *mikro* eta *makro* mailen artean ibiltzeko, maila lokaletik globalera aldatzeko.

INGURUNEAREKIKO KONPROMISOAREN ETA LANKIDETZAREN IKUSPEGI HORRETAN OINARRITUTA, HAUXE DEFENDATZEN DU EKONOMIA SOLIDARIOAK:

- *Tokiko garapen komunitario iraunkorreko planetatik abiatuta, biztanleriaren beharrei erantzuna ematea, kontziente izan behar duen eta antolatuta egon behar duen biztanleriaren parte-hartzearen bitartez.*
- *Tokiko garapenerako plan horietan, parte-hartze arrunta sareetan emandako laguntzan oinarritu behar da, era guztietako arazoei aurre egiten dieten gizarte-mugimenduekin batera, eta posizio ekonomiko kritikoak sustatzen dituzten kolektiboekin batera (ekologistekin, feministekin...).*
- *Eraldaketa-estrategiak dituzten sareak, dinamika sozial eta politikoen diseinuan eta garapenean eragina izateko moduko inpaktu soziala dutenak.*
- *Ekintza bateratu solidariorako sareak, informazio zorrotza eta komunikazio gardena dutenak, parte-hartze arduratsu eta demokratikoa egiten dutenak, eta gai espezifikotarako eta lurraldearen osotasunean zeharkakoak diren gaietarako ere irtenbideak bilatzen dituztenak.*
- *Tokiko eremutik abiatuta, alternatiba globalak sortzen laguntzeko artikulazio zabalagoak aztertzen dituzten tokiko garapenerako planak eta Sareak. "Globalki pentsatu, lokalki jardun".*

INGURUAREKIKO KONPROMISOARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

- Tokiko garapenaren alorrean egiten dugun lanaren gizarte-inpaktuak erakusten du inguruarekiko dugun konpromisoa. Horregatik, inguruko beste erakundeek eta hurbileko biztanleriak ikusarazi eta aitortu behar dute egiten duguna, eta gure lanaren inpaktua balioetsi.
- Inguruko alternatiba sozio-ekonomiko aktiboekin konpromisoa hartzetik abiatu behar dugu (aurrezkiaren, bidezko merkataritzaren, garapenaren eta abarren inguruko entitate eta kolektibo espezifikoak), gizarte-ehuna sortzea sustatu, eta lehendik dagoena estimulatu eta indartu behar dugu.
- Gure testuinguruaren analisisa egitea garrantzitsua da; batetik, egiak zer-nolako beharrak dauden jakiteko, eta zein entitate eta pertsona dauden behar horiekin konprometituta; eta, bestetik, zer-nolako kolaborazio-lehentasanak ezarri erabakitzeko, eta noren laguntza izango dugun eta norena ez jakiteko, konpromisoa bultzatzeko eta erantzun eraldatzaileak bilatzeko lan horretan.
- Beste entitate eta kolektibo batzuekin batera lan egiteko prozesu horietan, aniztasunarekiko tolerantzia oso garrantzitsua da, sareak indartzeko estrategiak garatu ahal izateko.

REAS – Sareen Sareak – erakundeak, gutun honen ondoren, konpromiso hauek hartzen ditu:

- **REASen eremuan lanabesak** erabili eta hobetuko ditu, hartara inpaktuak neurtu eta balioetsi ahal izateko, hobeto prebenitu, eta akatsak zuzendu ahal izateko. Neurtzeko **adierazleak prestatzea** komeni da. Gure iritziz, **Kontu-ikuskaritza Soziala** da REASEk bere koherentzia egiaztatzeko duen tresna metodologikoa.
- Lurralde bakoitzeko ekimenetan garatzen diren **jardunbide egokiak partekatu** behar dira, elkarrengandik ikasteko eta ekimen guztiek aurrera egin dezaten.